



## Horizon Kanpusa

Kanpus hau MTA metodologiaren gaitasunen lorpenean oinarritzen da: talde lana, egiten ikastea, partaidetza aktiboa eta sormen dinamikak.

MTA gaitasunak lortu eta trebatzeko, ekintza ludiko eta sortzaileen bidez garatzea baino ez dago. Jokuak egingo dira, umearen jarrera erabakitzailea bilatzen duten esperimentuak, gynkanak eta proiektuak.

**Lekua:** Ikastetxeko instalazioetan.

**Norentzat:** Lehen Hezkuntzako Hirugarren Ziklotik, DBH 2. mailara.

**Talde minimoa:** 15 ume.

**Datak:** Ekainaren 25tik 29ra.

**Ordutegia:** 9:30etatik 16:30etara.

**Zerbitzuak:** Autobusa eta jantokia.

**Prezioa:** 145€.

**Autobusen ibilbideak Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko geltokiengatik mugatuta dago.**



## Futbola eta Saskibaloiko Multikiroletako Kanpusa

### Ekintzak:

- Goizeko sesioak futbola edo saskibaloiko praktikara bideratuta egongo dira, egindako aukeraren arabera.
- Arratsaldeko sesioak beste eratako kirol modalitateei zuzenduta egongo dira: atletismoa, eskubaloia... edo ekintza ludikoak igerilekuan.
- Prezioak garraioa, bazkaria eta kirol niki bat barne hartzen du.

**Lekua:** Ortuellako futbol zelaian, polikiroldegi eta igerilekua.

**Norentzat:** Haur Hezkuntzako 3. maila, Lehen Hezkuntzako 1.mailatik 6.mailara, eta DBH 1etik 4. mailara.

**Datak:** Ekainaren 25tik 29era.

**Ordutegia:** 9:30etatik-16:30etara.

**Zerbitzuak:** Autobusa eta jantokia.

**Prezio:** 145€.

**Taldea max. eta min.:** Gutxienez 15, gehienez 50.

**Izen-ematea:** Neska-mutilak izena ematen duten ordenean onartuak izango dira. Izen-ematea gehienezko zenbakira heltzen denean itxi egingo da, nahiz eta epe amaiera ez izan.



## Taller de Circo



Zirko aktibitateak kontzentrazioa, pertseberantzia, diziplina estimulatzeaz gain, norberaren alaitasuna, konfiantza eta lan egiteko gogoia suspertzen ditu. Alde batetik zirkoa kirol bat da, eta aldi berean arte bat. Kirol legez, gure gaitasun psikomotoreak, indarra eta erresistentzia lantzen ditu. Eta ez bakarrik fisikoki, baita mentalki ere. Tailer honetan zirko modalitate desberdinak (malabareak, oreka, akrobaziak eta aire akrobaziak) jorratuz haurrak zirkuaren mundura hurbilarazten ditugu. Eta behin oinarrituko gaitasunak izanda, sormen prozesu batean sartzen zaie, "zirku txiki" haur zirko baten ikuskizun bat eginez. Horretarako, tailerra hauetan zirkoaz gain, makillaje, arropa, atrezzo, clown, globoflexia eta dantza nozioak ematen zaizkie.

**Disfrutatzen ikasiz:** Zirkun Zirkon proposatutako ekintza gehienak jolasaren bitartez landuko ditugu, haurrak disfrutatzen ikastea garrantzitsua ikusten baitugu.

**Materiala:** Aireko egitura autonomoak, telak, trapezioa, monozikloak, oreka bola, pedaloak, bizikleta txikiak, zankoak, malabareak (pilotak, uztaiak, diabloak, mazoak, hula hopak...), tranpolin txikiak...

**Lekua:** Ikastetxeko instalazioetan.

**Norentzat:** Haur Hezkuntzako 3. Ziklotik DBH 2. maila arteko ikasleentzat.

**Talde minimoa:** 15 ikasle.

**Datak:** Uztailaren 2tik 13ra.

**Horario:** De 9:30h a 16:30h.

**Zerbitzuak:** Autobusa eta jantokia.

**Prezioa:** 388€.

**Ematen du:** Zirkun Zirko Eskola (diziplinarteko konpainia bat da, zirko teknikak, txotxongiloak eta antzerkia fusionatzen dituena. Izaskun Ruedak zuzendua, Zirku Artean Lanbide-Heziketa tituluduna).



**Izen emateko data: apirilaren 1etik maiatzaren 30era hurrengo estekaren bidez: [imprimakia](#)**

## Surf Ikastaroa

### Ekintzak:

-Surf ikastaroa goizez.

-Boleibola eta futbola hondartzan eta aisialdi jolasak arratsaldez.

**Lekua:** Muskizeko hondartza.

**Norentzat:** Lehen hezkuntzako 4.mailatik DBH 2. mailara.

**Datak:** Uztailaren 2tik 6ra.

**Ordutegia:** 9:30etatik 16:30etara.

**Zerbitzuak:** Autobusak, jantoki zerbitzurik ez da egongo, beraz, ume bakoitzak bere janaria eraman beharko du.

**Prezioa:** 125€.

**Taldea min. y máx.:** Gutxienez 20 eta gehienez 52.

**Izen-ematea:** Neska-mutilak izena ematen duten ordenean onartuak izango dira. Izen-ematea gehienezko zenbakira heltzen denean itxi egingo da, nahiz eta epe amaiera ez izan.



## Ingeleseko Udalekuak

Udako ikastaroa ingelesa ikasteko eta praktikatzeko irakasle talde natibo eta espermentatuekin. Jolas-metodologia ekintzen garapenean oinarrituta: sukaldaritza, lorezaintza, eskulanak, kirola, musika eta jolasak. Udalekuetan zehar antolatutako ekimenak besteak beste: Inauteri eguna (ingeles eran), izugarrizko olinpiadak, azoka zientifikoa, kirolen eguna.

**Lekua:** Ikastetxeko instalazioetan bertan.

**Norentzat:** 3, 4, 5 urteetatik DBHko 2.mailara.

**Taldea max. eta min.:** 15 ume.

**Datak:** Uztailaren 2tik 27ra.

**Ordutegia:** 9:30etatik 16:30etara.

**Zerbitzuak:** Autobusa eta jantokia.

**Prezioa:** 744€.

**Klaseak emango ditu:** St. George English Academy-ak (bertako irakasle taldea).



## Haur Koloniak

Ekainaren 26tik uztailaren 14ra Ikastetxeak aukera ematen dizue zuen seme-alabak hona bidaltzeko. Monitoreekin ekintza ezberdinak egingo dituzte (jokuak, tailerrak, irteerak ingurueta, igerilekuetara irteera...).

Gutxienez 15 ikasle egon beharko dira egun bakoitzean.

**Lekua:** Ikastetxean bertan.

**Norentzat:** Haur Hezkuntzako 2. Zikloko ikasleentzat.

**Datak:** Uztailaren 2tik 27ra.


**Ordutegia:** 9:30etatik 16:30etara.

**Zerbitzuak:** Autobusa eta jantokia.

**Prezioak:** Hilabetea: 461€  
Bi aste: 308€

**Udaleku guztientzako zaintza zerbitzua:**  
**8:30etatik 9:30etara**

**Talde minimoa 12 pertsona eta familiek ekarri beharko dute ikaslea kotxez. Prezioa: 40€**



**Autobusen ibilbideak Haur Hezkuntzako 1. geltokien arabera izango da.**

**Izen emateko data: apirilaren 1etik maiatzaren 30era hurrengo estekan:**

**[imprimakia](#)**